

Donostia, 2017ko uztailaren 14a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, BARTZELONAKO ADIERAZPENARI BURUZKOA

Ana Martin Garin Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIOA aurkezten du. Mozio hau, hil honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAn, Duñike Agirrezabalaga Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkariari BARTZELONAKO ADIERAZPENAz egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den ekainean, Espainiako Estatu osoko 25 hiri bildu ziren “Bartzelona, Hiri Babes” Planak antolatutako jardunaldi batean, udal zerbitzuek asiloa eskatzen duten pertsonak hartzeko eta haiei laguntzeko daukaten beharra dela-eta, udalek dituzten erronkei buruz aritzeko.

Bartzelonako Adierazpenaren puntuetako bat da, besteak beste, Gobernu Zentralari eskatzea Europako Batasunean 2015 urtean hitzartutakoa betetzeko; hau da, 17.337 errefuxiatu hartzeko. Honela dio testuak: “Hori lortzen laguntzeko, hiriok prest gaude errefuxiatuak hartzeko leku gehiago lortzeko prozesuan eta Babeserako Estatuko Programa garatzen modu aktiboan laguntzeko.” Horrez gain, Espainiako Gobernuari eskatu zaio Espainian asiloa eskatzen dutenei gizarte-arreta egiteko baliatzen den prozedura aztertzeko; eta horretarako, autonomia-erkidegoekin, hiriekin eta udalerriekin koordinazio eta finantzaketa sistemak ezartzeko, udalerrietara eramaten dituzten errefuxiatuen kopuruei buruzko informazio eguneratua eduki ahal izateko, bai eta benetan etortzen diren errefuxiatuen kopuruari eta urteko aurreikuspenari buruzko informazioa edukitzeko ere. Hirugarrenik, Gobernuari eskatu zaio Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtzaren (FAMI) erabilerari buruzko informazio xehea emateko, errefuxiatuak eta immigranteak hartzera bideratzen direla ziurtatzeko. Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko zein integratzeko prozesuek eragindako kostuak batera finantzatzeko mekanismo bat ere aurreikusteko eskatu zaio. Izan ere, hala, udalerriek FAMI funtsa erabiltzeko eta harrerako udal programak garatzeko balia ditzaketen Europako funts guztiak (Estatuko Programarenaz gain) erabiltzeko aukera izango lukete, halaxe egiten baitute Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ere.

Lan-topaketa horretan parte hartzera gonbidatuta zeuden bai Donostia eta bai gainerako euskal hiriburuak ere, eta ez ziren joan. Zinegotzi ordezkariak, hil honetako batzordean, aditzera eman zuen hiru euskal hiriburuak erantzun bateratu bat landuko dutela: Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatzea Estatuko Gobernuarekin, hain zuzen.

Gure ustez, pertsona errefuxiatuek egunero-egunero bizi duten egoera dramatikoarekiko sentsibilizatuta dauden beste toki-erakunde batzuekin batera modu koordinatuan lan egitea ezinbestekoa da. Izan ere, nahiz eta nazioartean babesa bilatzen duten pertsonak hartzeko hainbat esparru instituzionaletan programak badaude ere, udalak dira sarbidea eta pertsonengandik hurbilen dagoen administrazioa. Beste udalerrri batzuetan lantzen ari diren ekimen eta proposamen guztiak tresna izan daitezke errefuxiatuei benetan ematen zaien harrera etengabe hobetzeko. Orain arte, 88 pertsona iritsi dira Donostiara, 2015az geroztik. Lanean jarraitu behar dugu, harrera hobetzeko eta errefuxiatu gehiago hartzeko bide emango duten politikak landuz.

Gure ustez, Bartzelonako Adierazpena komunikaziorako eta tokiko lana oinarritzeko tresna ona izan daiteke, haren bidez Espainiako Estatuko Gobernuari presio egiteko 17.337 errefuxiatu har ditzan, 2015ean Europako Batasunean hitzartutakoaren arabera. Hori lortze aldera, adierazpenarekin bat egiten duten hiriak prest agertu dira errefuxiatuak hartzeko leku gehiago lortzeko prozesuan eta Babeserako Estatuko Programa garatzen modu aktiboan laguntzeko.

Horiek horrela, honako kontrol mozioa aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari bat egiteko errefuxiatuei harrera egiteko Bartzelonako Adierazpenarekin, beste toki-administrazio batzuekin sinergiak ezartze aldera, errefuxiatuei benetako harrera, eskubideak aintzakotzat hartzen dituen, egitea izanik helburu.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari harrera egitea errazteko, Donostiak pertsona gehiago hartzearen.

Izpta. Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea